



# KOMUNIKA.25

**Komunikazioa tresna estrategiko gisa erabiltzea strategiaren helburu gehienak lortzeko.**

- 1.** Boluntariotzaren Euskal Kontseiluarentzat eta Boluntariotzaren Euskal Erakundearentzat komunikazio-estrategia bat definitzea.
- 2.** Komunikabide desberdinetan borondatezko lana ikusaraztea sustatzea.
- 3.** Boluntariotzaren Nazioarteko Egunaren inguruko ospakizun ekitaldi bat antolatzea.
- 4.** Sailen arteko harremana sustatzea, estrategia gizarteratzeko eta boluntariotzaren arloko lankidetzak indartzeko.
- 5.** Boluntarioak eta partaidetza gai nagusitzat duten azterlanak egitea eta zabaltzea.
- 6.** Boluntariotza.eus webgunea indartzea, behar eta joera berriak sartuz.
- 7.** Lehentasunezko kolektiboei, hala nola, gazte eta adinekoei, ego-  
kitutako sentsibilizazio-kanpainak zabaltzea.



# BOLUNTARIO- ESKOLA

**Boluntario-lana egiten duten pertsoneri gaitasun tekniko, generiko eta zeharkakoak emango dizkien gune bat sortzea, sinergiak optimizatu eta komunitatea sortzeko, bai eta pertsonak eta, bereziki, emakumeak zaindu eta ahalduntzeko ere.**

1. Komunikazioari buruzko prestakuntza-ikastaro bat egitea erakundeen barne- eta kanpo-komunikazioa hobetzeko.
2. “Boluntarioak prestatzeko 2021-2024 Plan Bateratua” egitea.
3. Erakundeentzako eta boluntarioentzako trebakuntza digitalari buruzko prestakuntza.
4. Lehendik dauden eta hainbat eremutatik datozen boluntariotzako toki-erakundeen sareen arteko baterako jarduerak egitea.
5. Boluntarioak elkartzeko aisiarako guneak sortzea, elkarren arteko harremanak errazteko eta boluntario-lana erakartzeko.
6. Zenbait erakundetako boluntarioen artean topaketarako eta elkarlaneko ikaskuntzarako guneak sortzea, jardunbide egokiak partekatze eta erronka nagusiei irtenbideak elkarrekin aurkitzeko.
7. Erakundeetan boluntario eraldatzaileak egotea bultzatuko duen gida bat egitea.
8. Boluntariotza korporatiboko plana abian jartzeko gida metodologikoa egitea.
9. Sektoreen arteko topaketak eta foroak egitea, sinergiak eta lan-kidetzak bultzateko.
10. Erretirorako prestatzeko prestakuntza eta informazio plana diseinatzea.



# RE-KONPENSA

**Gaitasunak aitortzeko sistema bat sortzea, boluntario-lanaren barruan eskuratzen direnak nabarmentzeko. Baita motibazioa eta lidergoa sustatzeko ere, garapen pertsonal eta profesionaletik abiatuta.**

- 1.** Gaitasunak aitortzeko sistema bat egitea.
- 2.** Enpresa-erakundeekin elkartzeko egutegi bat egitea, ekintza boluntarioan eskuratutako gaitasunen aitormena zabaltzeko.



# DIDAKTIKA

**Hezkuntzaren eremua gaitasunetan eta balioetan prestatzeko gune naturala izanik, ekintza boluntarioaren balioaz sentsibilizatzea, boluntariotza-agentzien egungo hezkuntza-sentsibilizazioko programak bateratuz eta ekimen berriak kontuan hartuz.**

- 1.** Berritzeguneei boluntariotzaren arloko sentsibilizazio-programei buruzko informazio-saioak eskaintzea.
- 2.** Berritzeguneetarako boluntarioei eta partaidetza sozialari buruzko prestakuntza diseinatzea.
- 3.** Zuzendariei eta orientatzaileei borondate-lana gertuago ezagutzeko mintegia eskaintzea Berritzeguneen bidez.
- 4.** Ikastetxeentzako euskarri materialak sortzea, boluntarioentzako programa propioak sustatzeko.
- 5.** Sentsibilizazio-programak etengabe garatzea, ikastetxeetan eta unibertsitateetan. (Adibidez: Begiraldatu eta Unikide).
- 6.** Sentsibilizazio-tailerrak dinamizatzeko joko bat garatzea (Gami-fikazioa).
- 7.** Ipuinen edizioa, fitxa didaktikoekin irakasleek ikasgelan landu dezaten: "Konta iezadazu ipuin bat, eta ikusiko duzu pozik nagoela" (Lehen eta Bigarren hezkuntza).
- 8.** Ipuin-kontaketa (unitate didaktikoa narratzaile-aktorearekin / Antzerki-lanekin).
- 9.** Boluntarioei eta partaidetza sozialari buruzko prestakuntza diseinatzea irakasleentzat, Prest Gara programan.
- 10.** Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin koordinazio-bilerak egitea, boluntarioak eta haien balioak hezkuntza-sistema formalean txertatzeko, hezkuntza-zikloaren etapa guztietan.



# BHERRIA

**Harreman eta lankidetzaren publiko-sozialerako modu berri irekia-  
goak, parte-hartzaileagoak eta erantzunkideagoak aztertzea eta  
sustatzea, administrazioko teknikarien eta politikarien eta herritar-  
ren arteko topaketa- eta ikaskuntza-espazio partekatuak sortuz.**

- 1.** Administrazio Publikoko teknikariei harreman-esparru egonkor bat ematea, lankidetzaren publiko-sozialeko proiektuak bultzatzeko eta indartzeko.
- 2.** Aliantza-estrategia bat definitzea, zeina Bherria lotuko baitu EAE-ko boluntarioekin, herritarren partaidetzarekin edo gobernu irekiarekin lotutako gaietan eragile garrantzitsuak direnekin.
- 3.** Udaleragileak boluntariotzari, partaidetzari eta lankidetzaren publiko-sozialari buruz prestatzeko plan iraunkor bat sortzea.
- 4.** Udaleragilearen arteko topaketak, elkar ezagutzeko, kontrastatzeko eta esperientzia eraldatzailean lan egiteko.
- 5.** Garapen komunitarioko esperientziak asmatzea, herritarrei zuzendutako ekimen parte-hartzaile eta berritzaileen bidez.